

Elkartasunerako Tonbola martxan

Urtero antolatzen den Tonbola Solidarioa, abenduaren 18an zabalduko da. Hala ere, antolatzaileek azaroaren erdialdera zabaldu zuten Herreroneko lokala, zozketatu behar diren eskulanen erakusketa egiteko eta jendearen ekarpenak jasotzeko.

Zabalik egon den 10 egunetan, 70 mantederia inguru, umeen arropak, baserriar jantziak, panpinak, koadroak... jaso ditu herriko tonbola solidarioak Erdikokalen duen lokalean eta bertan ere, erakusketa dotorea izan du. Guzti hauek prestatzeko urte osoa eman dute antolatzaileek, 15 lagun inguru, nahiz eta antolatzaileez gain, beste 28 kolaboratzaile dituzten, Murgarteia pintura taldeakoa, esate baterako.

Tonbola honen helburuak hiru dira, arduradunen esanetan. Alde batetik, elkarrekin batu eta elkarri gauzak egiten erakutsi nahi dute. "Gure taldean 80 urtetik gorako emakumeak daude, eta

horiek 'punto de cruz' erara egindako mantelak, umeentzako arropak eta horrelakoak egiten dituzte, batzuk baitaurreko barik!".

Bigarren helburua, berriz, solidarioa da, lortzen duten dirua, 3. Munduan garatzen diren proiektuak bultzatzeko erabiltzen dutelako. "Guk iaz emandako diruarekin, Peruko 300 umeek bazkaltzen dute urte osoz. Han Iñaki Peña eta German Saenz de Zaitegi daude. Afrikara ere dirua bidaltzen dugu, Hortensia Perosanzek bultzatzen duen proiekturako. Honez gain, Kolonbia, Venezuela eta beste leku batzuetara bidaltzen da. Geratzen den dirua, berriz, oihalak eta artileak erosteko erabiltzen dugu".



Azkeneko helburua, "herriko tonbola, herriarentzat egitea da. Hau da, herriko jendeak ekarritako produktuak, herriko jendeak eskuratzeko". Eta gainera, euskal munduarekin lotura emateko asmoa dago ere, "antolaketan, Ermuan dauden bi baserriar bakarrik gaudelako".

Aurten tonbolaren 4. edizioa ospatzen da eta iaz 9.000 euro jaso ziren. Horietatik 4.800 euro, 6 proiektu solidarioen artean banatu ziren eta 1.320 euro, lokalaren alokairua ordaintzeko erabili ziren.

Herreroneko lokalera artikulak eraman daitezke oraindik (hauek berriak izan behar dute, ez erabilitakoak), baina arduradunek era-

kusketa kendu dute dagoeneko, tonbolarako loteak prestatzen hasteko.

Abenduaren 18an tonbola hasiko da eta boletoak euro baten truke salduko dira. "Iaz bost boletotik batek saria zuen, baina aurten oraindik ez dakigu, loteak ez ditugulako oraindik prestatu eta zenbatu". Hala ere, saria lortzen ez dutenek, tonbolaren azken egunean egingo den zozketa berezian parte hartzeko aukera izango dute. Zozketa horretan, "saria jaso dutenek eta ez dutenek ere parte hartuko dute. Dozena erdi sari berezi prestatzen ditugu horretarako, mahai-zapirik dotoreenekin eta artikulurik berezienekin".

Dorleta Vidal



QUETZAL
gazte denda
Baietz topatu
gustuko
zeozer?
Goienkale 9
943 17 00 65

Proba-Leku
Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

"MENDIOLA"
Jatetxea
Erdikokale, 19
Tfno. (943) 17 22 43
ERMUA (Bizkaia)
EGUNEKO
MENUA
ETA KARTA
ERARA


URDAITEGIA - CHARCUTERIA
MATE
Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA


CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14